Gainera, aurretik deskribatutako prestazio teknikoak emateko, beharrezkoa izango da unibertsitateko goi-mailako titulazioa eta lanbide prestakuntzakoa izatea, gizarte esku-hartzearekin lotuta, tailerretako monitoreen lanpostuak salbuetsiz.

3.1. Recursos humanos

El programa contará con un equipo multidisciplinar para la atención de las personas usuarias y la provisión a las mismas de las prestaciones adecuadas a sus necesidades.

Además, para la provisión de las prestaciones técnicas descritas será requisito necesario poseer titulación superior universitaria o formación profesional, relacionada con la intervención social, salvo para los puestos de monitor/a de taller.

3.2 eredua.- Informatzeko betebeharra:

Erakunde laguntzaileak Gizarteratze Zerbitzura bidali beharko du hitzarmena sinatu eta berehala hitzartutako zerbitzuari lotutako pertsonen txanden eta jardueren plangintza, baita horietan egindako aldaketak ere.

3.2.- Obligación de información:

La entidad colaboradora deberá remitir al Servicio para la Inclusión, con carácter inmediatamente posterior a la firma del convenio, la planificación de turnos de las personas profesionales y las actividades vinculadas al servicio convenido, y las modificaciones que se produzcan en los

mismos.

Era berean, langileen zerrenda bat bidali beharko du, zuzeneko arreta emango duten langileak eta kudeaketako langileak bereizita, honako informazio honekin:

- Zuzeneko arreta emango duten langileen eta zerbitzuari esleitutako kudeaketako langileen izen-abizenak.
- Titulazioa.
- Zerbitzua emateko kontratatutako langilearen lanbide-kategoria.
- Urteko ordu-kopurua.
- Hitzartutako zerbitzuarekiko dedikazioaren ehunekoa.

Gainera, erakunde laguntzaileak Gizarteratzea Sustatzeko Zerbitzuari jakinarazi beharko dizkio zerbitzuari atxikitako langileei buruzko aldaketa guztiak.

Dokumentazio hori bidaltzen ez bada edo langileei buruzko aldaketak jakinarazten ez badira, hitzarmena deuseztatzeko arrazoiak sortu daitezke, hitzarmenaren urratzeak egiteagatik, hain zuzen ere.

### 3.3. Indarrean dagoen laneko araubidea betetzea:

Erakunde laguntzailea eta, kasuan kasu, hark prestazio osagarriak emateko kontratatutako entitateek indarreko sozietate eta laneko araudian xedatutakoa bete beharko dute. Era berean, eta aplikazio eremuaren barruan dagoen heinean, erakunde laguntzailean kontraturik gabe ari direnek ere, praktiketako ikasleek esate baterako, arautegi hori bete beharko dute.

Horrez gain, boluntarioen kasuan, erakunde

En idéntico sentido, deberá remitir una relación de personal, distinguiendo entre personal de atención directa y personal de gestión, con la información siguiente:

- Nombre y apellidos del personal de atención directa y del personal de gestión asignado al servicio.
- Titulación.
- Categoría profesional conforme a la cual figura contratada para la prestación del servicio.
- Número de horas anuales.
- Porcentaje de dedicación e imputación al servicio convenido.

Además, la entidad colaboradora deberá notificar al Servicio para la Inclusión cualquier modificación en la relación del personal vinculado al servicio convenido.

La falta de remisión de esta documentación o la falta de comunicación de cualquier modificación en la relación del personal podrá ser considerada como causa de resolución del convenio por incumplimiento del mismo.

### 3.3. Cumplimiento de normativa laboral vigente:

La entidad colaboradora y, en su caso, las entidades contratadas por ésta para la provisión de prestaciones complementarias estarán obligadas al cumplimiento de lo dispuesto en la normativa socio-laboral vigente. Asimismo, y en la medida en que resulte comprendido dentro de su ámbito de aplicación, tal normativa será de obligado cumplimiento para con el personal de la entidad colaboradora cuya vinculación con la misma no se encuentre regulada por una relación contractual, como es el caso del personal en prácticas.

Igualmente, respecto a las personas

kolaboratzaileak Boluntarioei buruzko ekainaren 25eko 17/1998 Legearen arabera egokituko du haien jarduera; bereziki, 6. eta 7. artikuluek ezarritakoaren arabera, boluntarioen eskubide eta betebeharrei buruzkoak, hurrenez hurren. Bestalde, lege horren 8. artikuluko 3. eta 4. zenbakiak ere bete beharko ditu, erakundeen eta boluntarioen arteko harremanari buruzkoak. Erabiltzaileei zuzeneko arreta ematea eta dagokion xedapenean zehaztutako prestazioak ematea, ezin izango da bakarrik boluntarioekin egin.

voluntarias, la entidad colaboradora, adecuará su actuación a lo previsto en la Ley 17/1998, de 25 de junio, del Voluntariado y, en particular, a lo previsto en los artículos 6 y 7, relativos a los derechos y obligaciones del voluntariado respectivamente, y en los apartados 3 y 4 del artículo 8 relativo a la relación entre las organizaciones y el voluntariado. La atención directa a personas usuarias y la provisión de las prestaciones detalladas en la estipulación correspondiente no podrá proveerse a través de personal voluntario.

Nolanahi ere, erakunde kolaboratzaileak, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzko maiatzaren 12ko 6/2016 Legearen 16. artikuluko 1. zenbakiko a) letran xedatutakoarekin bat etorriz, lan-baldintza duinak bermatu beharko dizkie kontratatutako soldatapeko langileei, aipatutako hitzarmen kolektiboak betez, bai eta erakundeek kudeatutako erantzukizun publikoko zerbitzuak emateko lan-baldintzei buruzko xedapen arauemaileak bete ere. Era berean, boluntarioek baldintza egokietan jardun beharko dute.

En todo caso, la entidad colaboradora, de conformidad con lo previsto en el apartado 1, letra a, del artículo 16 de la Ley 6/2016, de 12 de mayo, del Tercer Sector Social de Euskadi está obligada a garantizar unas condiciones laborales dignas al personal contratado remunerado, cumpliendo los convenios colectivos de referencia y las disposiciones normativas en relación con las condiciones laborales en la provisión de servicios de responsabilidad pública gestionados por las organizaciones, así como unas condiciones adecuadas al personal voluntario.

Bosgarren xedapenean xedatutakoa ere betez, 6/2016 Legearen 16.1 artikuluko i) letran xedatutakoaren arabera, zerbitzuak baldintza onenetan eman beharko ditu eta langileen laneko segurtasun eta osasun arloko xedapenak betetzen direla bermatu beharko du zerbitzu sozialak ematean eta horietan jardutean.

Sin perjuicio de lo estipulado en la estipulación quinta, de acuerdo con lo previsto en la letra i) del referido artículo 16.1 de la Ley 6/2016, debe prestar los servicios en las mejores condiciones y garantizar el cumplimiento de las disposiciones en materia de seguridad y salud laboral de las trabajadoras y trabajadores en la provisión y actividad de los servicios sociales.

Ildo beretik, artikulu bereko j) letran ezarritakoari men eginez, gaitasun teknikoa, metodologia- eta antolaketa-baliabideak eta jarduteko gaitasuna etengabe hobetzea bultzatu beharko du.

En idéntico sentido, en virtud de lo dispuesto en la letra j) del mismo artículo, deberá fomentar la mejora continua de la capacidad técnica, recursos metodológicos y organizativos, y de su capacidad de actuación.

Aurrekoaren ondorioetarako, zerbitzua ematen duen entitateak Bizkaiko Foru Aldundiak eskatutako informazio oro eman beharko du, langileei aplikatuko zaizkien lan

A efectos de lo anterior, la entidad prestadora del servicio deberá facilitar cuanta información le sea requerida por la Diputación Foral de Bizkaia sobre las condiciones de trabajo que apliquen a su

baldintzei dagokienez.

personal.

Horrez gain, Bizkaiko Foru Aldundiak aintzat hartuko ditu langileen ordezkari legalek azaldu ditzaketen gorabeherak, baita langileek beraiek edo aipatutako betebeharrak ez betetzearen berri izan dezakeen beste edozein pertsona fisikok azaldutakoak ere. Horretarako, Bizkaiko Foru Aldundiak Gizarte Ekintza Saileko ikuskapen-zerbitzuak erabili nahiz kontrol jarduerak egin ahalko ditu Gizarteratzeko Zerbitzuaren bidez, betiere, kontuan hartuta aipatutako gorabeheren ebazpena eskumena duen lan-ikuskapenari edo gizarte arloko jurisdikzio-ordenari dagokiola.

Asimismo, la Diputación Foral de Bizkaia atenderá las incidencias que pudieran trasladarle los y las representantes legales de los trabajadores y las trabajadoras, los propios trabajadores y trabajadoras o cualquier persona física que pudiera tener conocimiento de algún incumplimiento de las mencionadas obligaciones. Para ello, la Diputación Foral de Bizkaia podrá utilizar tanto los servicios de inspección del Departamento de Acción Social, como realizar actuaciones de control a través del Servicio para la Inclusión, siempre teniendo en cuenta que la resolución de las citadas incidencias deberá corresponder a la inspección de trabajo competente o el orden jurisdiccional social.

Azkenik, aditzera eman nahi da Bizkaiko Foru Aldundiko Enplegua, Gizarteratzea eta Berdintasuna Sustatzeko Sailak ez duela inolako lan-erlaziorik erakunde laguntzailearen langileekin, ez eta hark hitzartutako zerbitzua egiteko kontratatzen dituen enpresen langileekin ere.

Por último, se hace constar que la Diputación Foral de Bizkaia-Departamento de Empleo, Inclusión Social e Igualdad queda desvinculada a todos los efectos de cualquier relación laboral con el personal de la entidad colaboradora y/o de las empresas contratadas por ésta para la prestación del servicio convenido.

**Laugarrena.- Sartzeko betekizunak.**

**Cuarta. - Requisitos de acceso.**

Hitzarmen honen esparruan, dispositiboko plazak eskuratu ahal izango dituzte hemezortzi (18) urtetik gorako pertsonek, baldin eta 59/2019 Foru Dekretuaren 13. artikuluko baldintzak betetzen badituzte eta intentsitate ertaineko laguntza behar badute okupazioetarako edo laneratze aurreko ibilbidea egiteko inklusio sozio-laborala lortzearen ondoreetarako.

Podrán acceder a las plazas del dispositivo, en el marco del presente convenio, las personas, que siendo mayores de dieciocho (18) años que cumplan los requisitos del artículo 13 del Decreto Foral 59/2019 y que precisen de un apoyo de media intensidad para la realización de un itinerario ocupacional o pre-laboral, tendente a su eventual inclusión socio-laboral.

**Bosgarrena.- Diru-sarrerak eta arreta eman beharreko kasu kopurua.**

**Quinta.- Ingresos y número de casos objeto de atención.**

1. Hitzartutako zerbitzuko sarrerak eta esku-hartzeak 59/2019 Foru Dekretuan aurreikusitakoaren arabera egingo dira.

1. Los ingresos y la intervención en el servicio convenido se realizarán conforme a lo previsto en el Decreto Foral 59/2019.

Adierazi den dekretu horren xedapen iragankor bakarrean aurreikusitakoarekin

De conformidad con lo previsto en la disposición transitoria única del citado

bat etorriz, zuzenean sartu ahal izango da, Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeki foru diputatuaren 4220/2016 Foru Aginduan oinarrituta; dena dela, 59/2019 Foru Dekretuaren 13. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituzten erabiltzaileek izango dute sartzeko lehentasuna.

decreto, el acceso podrá tener lugar de forma directa, con base en la Orden Foral 4220/2016, de la Diputada Foral de Empleo, Inclusión Social e Igualdad, si bien contarán con preferencia de acceso las personas usuarias que cumplan los requisitos del referido artículo 13 del Decreto Foral 59/2019.

2. Hitzartutako zerbitzuaren izaera kontuan hartuz, plazen kopurua ZORTZI (8) da.

2. Teniendo en cuenta la naturaleza del servicio convenido, el número de plazas se fija en OCHO (8).

Seigarrena.- Azpikontratazioa

Sexta.- Subcontratación

Azpikontratazioa prestazio osagarriei dagokienez baino ezingo da egin.

La subcontratación solo podrá recaer sobre prestaciones complementarias y/o accesorias.

Ondorio guztietarako, Bizkaiko Foru Aldundiak ez du inolako lan-harremanik erakunde laguntzailearekin eta/edo hark zerbitzua emateko kontratatutako enpresekin.

La Diputación Foral de Bizkaia queda desvinculada a todos los efectos de cualquier relación laboral de la entidad colaboradora y/o de las empresas subcontratadas por esta entidad para la prestación del servicio.

Zazpigarrena.- Alderdietako bakoitzak bere gain hartutako betebehar eta konpromiso ekonomikoak

Séptima.- Obligaciones y compromisos asumidos por las partes

7.1.- Erakunde kolaboratzailearen betebehar orokorrak

7.1.- Obligaciones generales de la entidad colaboradora

Erakunde kolaboratzaileak betebehar hauek edukiko ditu:

1. Zerbitzua hitzarmen honen arabera emateko behar diren jarduera guztiak egitea.
2. Aplikatu beharreko araudiaren arabera aurkeztu behar dituen baimen eta erregistro guztiak eskatu eta izapidetzea.
3. Jasotako kopuruak zerbitzua emateko baino ez erabiltzea.
4. Hitzarmen honi lotuta kanpoko proiekzioa duen jarduera orotan, zerbitzuaren foru titulartasuna,

La entidad colaboradora vendrá obligada a:

1. Realizar todas las actuaciones necesarias para la prestación del servicio conforme al presente convenio.
2. Solicitar y tramitar todas las autorizaciones y registros a que estuviere obligada en razón de la normativa que le sea aplicable.
3. Destinar las cantidades percibidas, exclusivamente, a la prestación del servicio.
4. Hacer constar en cualquier actividad que, relacionada con el presente convenio, tenga

Bizkaiko Foru Aldundiaren finantzazioa eta baliabidearen izaera publikoa agertzea. Betebehar horren barruan, ikusgai jarri beharko dira Bizkaiko Foru Aldundiaren izena eta logotipoa. Azken hori, aldundiaren anagramak eta erabakiko den testuak osatzen dute, indarreko diseinuaren arabera.

Hala, Bizkaiko Foru Aldundiaren irudi instituzionala agerraraziko da hitzarmenaren xede den zerbitzuak informazioa eta publizitatea helarazteko erabiliko dituen karteletan, oroigarri plaketan, inprimatutako materialetan, baliabide elektronikoetan edo ikus-entzunezko baliabideetan, eta, hala badagokio, komunikabideetan edo mintzaldi publikoetan parte hartzerakoan berariaz aipatuko da, baita hitzarmenaren xedeari lotutako pareko eraginkortasuneko bestelako neurrietan ere. Anagrama ikusgarri egongo da, zentroaren barneko aldean eta kanpoan.

5. Egoitza eta ordezkari bat Bizkaian izatea; ordezkariak hitzarmenak, fakturak, jakinarazpenak eta hitzarmen honetatik eratorritako izapidetze oro sinatzeko nahikoa botere izan beharko du.

6. Halaber, hitzartutako zerbitzuak emateko baldintzen jarraipena eta kontrola egitea eta egiaztapena erraztea Bizkaiko Enplegua, Gizarteratzea eta Berdintasuna Sustatzeko Sailari, Gizarte Ekintza Saileko Ikuskaritza eta Kontrol Zerbitzuak eta Gizarteratzea eta Berdintasuna Sustatzeko Saileko Gizarteratzeko Zerbitzuak bertako jarduerak egitea barne.

proyección exterior, la titularidad foral del servicio, la financiación de la Diputación Foral de Bizkaia y el carácter público del recurso. Esta obligación incluirá la necesidad de hacer visible la denominación y logotipo de la Diputación Foral de Bizkaia, siendo éste el formado por el anagrama de la Diputación acompañado del texto que se determine en su momento y de acuerdo con el diseño vigente.

Así se incluirá la imagen institucional de Diputación Foral de Bizkaia en los carteles, placas conmemorativas, materiales impresos, medios electrónicos o audiovisuales en los que se publicite o informe del servicio objeto del convenio y, en su caso, se realizará mención específica en las participaciones que se lleven a cabo en medios de comunicación o en intervenciones públicas u otras medidas que resulten adecuadas al objeto del convenio y de eficacia equivalente. El anagrama deberá figurar visible tanto en el exterior como en el interior del centro.

5. Mantener una sede y un representante en Bizkaia con poderes suficientes a efectos de suscripción de convenios, firma de facturas, notificaciones y cuantos trámites sean derivados del presente convenio.

6. Facilitar, asimismo, al Departamento de Empleo, Inclusión Social e Igualdad el seguimiento, control y verificación de las condiciones de prestación de los servicios convenidos, incluyendo actuaciones *in situ* tanto por parte del Servicio de Inspección y Control del Departamento de Acción Social, como por parte del Servicio para la Inclusión del Departamento de Empleo, Inclusión Social e Igualdad.

7. Era berean, egiaztapen eta kontrol jarduеretan lankidetzan jardun beharko du, Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantzen Sailak hala erabakiz gero.

8. Bizkaiko Foru Aldundiari hitzarmenak dirauen bitartean eta xede berbererako jasotako dirulaguntza edo laguntza mota ororen berri ematea.

9. Pertsona erabiltzaileei eman beharreko arretan zein mantentze-kostuetan eragina izan dezakeen edozer gertatuz gero, Enplegua, Gizarteratzea eta Berdintasuna Sustatzeko Sailari horren berri emateko konpromisoa hartu du erakunde laguntzaileak, aldez aurretik nahiko denboraz.

   Horrez gain, baliabidearen kokapenaren gaineko edozein aldaketa proposamen ere jakinaraziko dio.

10. Aseguruak:

- Erakunde laguntzaileak berezko du egiten duen jarduera eta, beraz, bere jarduneko zerbaitek erantzukizuna badakar, berak bakarrik bereganatuko du.

- Erakunde laguntzaileak erantzukizun zibileko asegurua sinatu beharko du oro har hitzarmenaren xede den zerbitzurako, kasu honetan gutxienez 250.000,00 euroko estaldurarekin, hitzartutako zerbitzuak ematetik ondorioztatutako erreklamazioak (zerbitzua ematen duen lokaleko kalteengatiko erreklamazioak eta/edo jarduerari atxikitako lokalaren eta ondasunen jabetzaren eta/edo erabileraren ondoriozkoak, dagokionaren arabera, barne) zein erakunde laguntzaileko langileek programa ematean titulazio ofiziala

7. Asimismo, deberá colaborar en las actuaciones de verificación y control que, en su caso, pueda llevar a cabo el Departamento de Hacienda y Finanzas de la Diputación Foral de Bizkaia.

8. Notificar a la Diputación Foral de Bizkaia las subvenciones o ayudas de cualquier tipo que se reciban durante la vigencia de este convenio y que se refieran a su mismo objeto.

9. La entidad colaboradora se compromete a comunicar, con la suficiente antelación, al Departamento de Empleo, Inclusión Social e Igualdad cualquier eventualidad que pudiera repercutir tanto en la atención a las personas usuarias como en los costes de mantenimiento.

   Asimismo, comunicará cualquier propuesta de cambio relativo a la ubicación del dispositivo.

10. Seguros:

- La actividad que desarrolla la entidad colaboradora es propia de ella y, en consecuencia, la responsabilidad derivada del ejercicio de dicha actividad es asumida íntegramente por ella.

- La entidad colaboradora vendrá obligada a suscribir con carácter general para el servicio convenido, un seguro de responsabilidad civil, en el presente caso con una cobertura mínima de 250.000,00 €, con objeto de asegurar las reclamaciones derivadas de la prestación de los servicios convenidos (incluyendo las reclamaciones por daños al local en donde se presten y/o la derivada de la propiedad y/o uso del local y bienes afectos a la actividad, según corresponda), así como las responsabilidades civiles derivadas de cualquier actividad del personal de la

eskatzen duen edozein jardueratatik ondorioztatutako erantzukizun zibilak bermatzeko. Aseguru horrek zerbitzua egitearen eta betebeharrak oro har garatzearen ondorioz hirugarrenei eragin dakizkiekeen kalteengatik eska daitezkeen zuzeneko, zeharkako eta/edo ondoriozko kalteak bermatuko ditu, inolako erreserbarik gabe. aseguruaren barnean hirugarrentzat joko dira Bizkaiko Foru Aldundia, zerbitzuko erabiltzaileak, langileak, boluntarioak eta, hala denean, entitate laguntzaileak azpikontratatutako erakundeak (haren zerbitzuan lan egiten duten langileak barne).

11. Gizarte Zerbitzuei buruzko Eusko Legebiltzarraren abenduaren 5eko 12/2008 Legeko 59.1. artikuluan ezarri denaren arabera, ekimen pribatuko erakundeek, Gizarte Zerbitzuen Erregistroan inskribatuta egoteaz gain, baimen administratiboa behar dute gizarte zerbitzuak egiteko eta hornitzeko, eta, gainera, euren izaeraren eta motaren araberako betekizun materialak, funtzionalak eta pertsonalekoak bete behar dituzte.

Bigarren idatz-zatian ezarri da erakunde pribatuek, behar bezala inskribatuta eta baimenduta egoteaz gainera, homologazioa behar dutela Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako gizarte zerbitzuetan aritzeko.

Azkenik, 59.3. artikuluan ezarri da homologatzea aldez aurreko ezinbesteko betekizuna dela herri administrazioek erakunde pribatuak kontratatu ahal izateko gizarte zerbitzuak egiteko, bai eta horretarako itunak egiteko ere. Nolanahi ere, homologazioa lortzeak ez dakar berekin ituna ez kontratua eskatzeko eskubidea, ezta lankidetza hitzarmena ere.

Gaur egun oraindik gizarteratzearen arloko homologazio arautegirik ez dagoenez, hitzarmen hau zuzenbideari lotzen zaiola ulertuko da, eta, beraz,

entidad colaboradora para la que se requiera titulación oficial, que asegure, sin reservas, cuantos daños directos e indirectos y/o consecuenciales puedan serle exigibles por posibles afecciones a terceros derivados de la ejecución del servicio y desarrollo general de sus obligaciones. Dentro del seguro tendrán también la consideración de terceros tanto la Diputación Foral de Bizkaia como la persona usuaria del servicio, el personal empleado, el personal voluntario y, en su caso, las entidades subcontratadas (incluido el personal a su servicio) de la entidad colaboradora.

11. A tenor de lo dispuesto en el artículo 59.1 de la Ley del Parlamento Vasco 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales, las entidades de iniciativa privada requerirán, además de su inscripción en el Registro de Servicios Sociales, la correspondiente autorización administrativa para poder intervenir en la provisión y prestación de servicios sociales, previo cumplimiento de los requisitos materiales, funcionales y de personal que les correspondan en función de su naturaleza y tipología.

Asimismo, en su apartado 2 establece que las entidades privadas, debidamente inscritas y autorizadas, requerirán la previa homologación para intervenir en la prestación de servicios sociales integrados en el Sistema Vasco de Servicios Sociales.

Por último, el artículo 59.3 dispone que la previa homologación constituirá un requisito preceptivo para que una entidad privada pueda concertar, contratar, o, en su caso, convenir la provisión de servicios sociales con una administración pública. En todo caso, la obtención de la homologación no otorga el derecho a exigir ni la concertación ni la contratación, ni, en su caso, el convenio de colaboración.

No existiendo a fecha actual la citada

beronen xede diren zentroa eta zerbitzua erakunde eskumendunaren gutxieneko eta baterako baldintzez noizbait ematen dituen arauetara ez moldatzea hitzarmena suntsiarazteko kausa izango da.

normativa de homologación en materia de inclusión social, se entiende ajustado a derecho el presente convenio, siendo causa de resolución del mismo, la no adaptación del centro y servicio objeto del presente convenio a la futura normativa que emane del órgano competente, relativa a las condiciones mínimas básicas y comunes aplicables a la homologación.

12. Erakunde laguntzaileak bere proposamenetan eta horien aurkezpenean ezin dute erabili hizkera sexistarik. Era berean, hitzarmenak iraun bitartean, hizkera ez sexista erabili beharko da behin betiko idatzizko agiri guztietan eta agiri digital guztietan, eta irudiak ere ez sexistak izan beharko dira, eta erabilitako rolak eta estereotipoak albo batera utzi beharko dira. Era berean, pertsonei buruzko estatistika guztiak sexuen arabera banatu beharko dira eta Emakumeen eta gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 2.3. artikuluarekin bat eginez, errespetatu beharreko printzipio orokorrak beteko dira. Azkenik, Bizkaiko Foru Aldundian indarrean dagoen Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Foru Plana eta Emakumeen eta gizonen berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Araua bete beharko dira.

12. La entidad colaboradora, en la elaboración y presentación de sus respectivas propuestas, deberá hacer un uso no sexista del lenguaje. Asimismo, a lo largo de la vigencia del convenio deberá hacer un uso no sexista del lenguaje en cualquier documento definitivo escrito o digital, y de las imágenes y superación de roles y estereotipos utilizados. Igualmente, deberá desagregar los datos por sexo en cualquier estadística referida a personas que se genere, así como todo ello al amparo del artículo 2.3, de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres, en el que se señalan los principios generales que deberán respetarse, así como del Plan Foral para la Igualdad de Mujeres y Hombres vigente en la Diputación Foral de Bizkaia y la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

13. Entitateak, ahal duen neurrian, hitzarmen honen markoan antolatuko diren zerbitzu, hitzordu edo jardueretan egon daitezkeen oztopo arkitektonikoak eta komunikazioak desagerrarazteko lan egingo du eta horretan kolaboratuko du.

13. La entidad, en la medida de sus posibilidades, trabajará y colaborará para eliminar las barreras arquitectónicas y de comunicación que pudieran presentarse en los servicios, eventos o actividades que organice en el marco del presente convenio.

14. Erakunde kolaboratzaileak Bizkaiko Lurralde Historikoko Gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauan jasotako publizitate aktiborako

14. La entidad colaboradora cumplirá con las obligaciones de publicidad activa y derecho de acceso a la información pública recogidas en la Norma Foral 1/2016, de 17 de

betebeharrak eta informazio publikorako eskubidea beteko ditu.

Era berean, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzko maiatzaren 12ko 6/2016 Legearen 16. artikuluko 1. zenbakiko b) letrak ezarritakoari jarraituz, erakunde kolaboratzaileak gardena izan beharko du eta kontuak eman beharko ditu, barruan zein kanpoan, Gardentasunari, Informazioa Eskuratzeari eta Gobernu Onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legeak eta aipatutako foru arauak ezarritakoa betez, bidezkoa bada.

15. Erakundeak Gizarte Segurantzari dagozkion betebeharrak beteta eduki behar ditu, bai eta zerga betebeharrak ere.

16. Ezin du debeku, ezintasun edo bateraezintasun kausarik izan, eta Sektore Publikoko Kontratuen Legearen (9/2017, azaroaren 8koa) 71. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako baldintzak bete behar ditu.

17. Hitzarmenak irauten duen bitartean ez du IFZ galduko, ezta behin-behinean ere.

### 7.2.- Erakunde laguntzailearen laneko eta prebentzioko betebeharrak

1. Erakunde laguntzaileak lan harremanei, gizarte segurtasunari eta laneko higiene eta segurtasunari dagokienez indarrean dauden betebehar guztiak betetzeko konpromisoa hartu du, bereziki, hitzarmen honen xede den baliabidean zerbitzuak emango dituzten langileei dagokienez; ondorio guztietarako erakunde laguntzailearen mende dago. Erakunde horrek erantzun beharko du zuzenean hitzarmen hau indargabetzearen ondorioz sor

febrero, de Transparencia del Territorio Histórico de Bizkaia.

Asimismo, de conformidad con lo previsto en el apartado 1, letra b, del artículo 16 de la Ley 6/2016, de 12 de mayo, del Tercer Sector Social de Euskadi, deberá ser transparente y rendir cuentas, interna y externamente, de acuerdo, en su caso, con lo dispuesto en la Ley 19/2013, de 9 de diciembre, de transparencia, acceso a la información pública y buen gobierno y la citada Norma Foral.

15. La entidad deberá estar al corriente en el cumplimiento de las obligaciones con la Seguridad Social, así como de las obligaciones tributarias.

16. No estará incursa en causa de prohibición, incapacidad o incompatibilidad, cumpliendo los requisitos contenidos en los artículos 71 y siguientes de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público.

17. No perderá, ni siquiera con carácter provisional, el NIF durante la vigencia del Convenio.

### 7.2.- Obligaciones laborales y de prevención de la entidad colaboradora

1. La entidad colaboradora se compromete a cumplir todas las obligaciones vigentes en materia de relaciones laborales, seguridad social e higiene y seguridad en el trabajo, especialmente en lo referente al personal que presta servicios en el dispositivo objeto del presente convenio, que depende a todos los efectos de la entidad colaboradora. La entidad deberá responder directamente de las indemnizaciones que pudieran causar como consecuencia de la

daitezkeen kalte-ordainen aurrean.

2. Betebehar hori eskatuko zaie hitzarmen honen esparruan azpikontrata litezkeen entitateei ere.

3. Zehazki, entitate kolaboratzaileak langileen bizitza, integritatea eta osasuna kaltetu dezaketen arriskuak ahalik eta hobekien prebenitzeko beharrezkotzat jotzen dituen edo derrigortuta dagoen laneko segurtasun eta higienearen alorreko neurriak hartuko ditu. halaber, eta jarduera hasi aurretik, indarreko araudiak ezarritako lan arriskuen prebentzioaren arloko betebeharrak beteko ditu.

4. Horrez gain, erakunde kolaboratzaileak:

   a) Indarrean dagoen legeriaren araberako antolakuntza prebentiboko modalitate bat hartuko du.

   b) Laneko arriskuen prebentzioa enpresaren kudeaketa-sistema orokorrean integratuko du. horretarako, laneko arriskuen prebentziorako plan bat ezarri eta aplikatuko du, urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretuak onartutako Prebentzio Zerbitzuen Erregelamenduko 2. artikuluaren arabera.

   c) Ezarritako segurtasuneko neurriak betetzen direla ziurtatuko du.

resolución del presente convenio.

2. Dicha obligación resultará exigible respecto de las entidades que puedan subcontratarse en el marco de la ejecución del presente convenio.

3. En particular la entidad colaboradora adoptará cuantas medidas de seguridad y salud en el trabajo fueran obligatorias o necesarias en orden a la más perfecta prevención de los riesgos que puedan afectar a la vida, la integridad y la salud de las personas trabajadoras. Cumplirá, asimismo, las obligaciones en materia de prevención de riesgos laborales establecidas por la normativa vigente y antes del inicio de la actividad.

4. Asimismo, la entidad colaboradora:

   a) Adoptará una modalidad de organización preventiva acorde con la legislación vigente.

   b) Integrará la prevención de riesgos laborales en el sistema general de gestión de la empresa mediante la implantación y aplicación de un plan de prevención de riesgos laborales según el artículo 2 del Reglamento de los Servicios de Prevención, aprobado por el Real Decreto 39/1997 de 17 de enero.

   c) Asegurará el control del cumplimiento de las medidas de seguridad establecidas.

   d) Dispondrá, en su caso, de

d) Kasuan kasu, bere arriskuen ebaluazioa dela-eta prebentzioko baliabide bat egoteko eskatzen duten zeregin eta/edo jardueren zerrenda bat edukiko du.

e) Beharrezkoa bada, norbera babesteko ekipamendua eman zaiela justifikatzen duten agiriak edukiko ditu.

f) Zerbitzuan parte hartuko duten enpresa azpikontratisten eta langile autonomoen zerrenda aurkeztuko dio Bizkaiko Foru Aldundiari.

una relación de tareas y/o actividades que por la evaluación de sus riesgos exigen la presencia de un recurso preventivo.

e) Dispondrá de justificante de la entrega de equipos de protección individual, que en su caso, fueran necesarios.

f) Presentará a la Diputación Foral de Bizkaia la relación de empresas subcontratistas y personas trabajadoras autónomas que vayan a participar en el servicio.

5. Erakunde kolaboratzaileak jardueraren gauzapenaren zati bat azpikontratatzen badu, azpikontratei nagusiari eskatzen zaion dokumentazio bera eskatu beharko die eta haren kopia bat eman beharko dio Bizkaiko Foru Aldundiari.

5. Si la entidad colaboradora subcontratara parte de la ejecución de la actividad, deberá exigir a las subcontratas la misma documentación que se requiere a la principal y entregar una copia a la Diputación Foral de Bizkaia.

6. Bizkaiko Foru Aldundiak beharrezkotzat jotzen dituen neurriak hartuko ditu erakunde kolaboratzaileak lan arriskuen prebentzioaren arloko baldintzak betetzen dituela egiaztatzeko.

6. La Diputación Foral de Bizkaia adoptará las medidas que considere necesarias para comprobar el cumplimiento de los requisitos en materia de prevención de riesgos laborales por parte de la entidad colaboradora.

7. Bizkaiko Foru Aldundiak aipatu betebeharrak guztiz betetzen direla bermatzeko behar diren neurriak hartzeko eskatu eta araudian aurreikusitako ekintza guztiak egin ahalko ditu.

7. La Diputación Foral de Bizkaia podrá reclamar la adopción de las medidas necesarias para garantizar la total observancia de las obligaciones señaladas y ejercitar todas las acciones previstas en la normativa.

7.3.- Bizkaiko Foru Aldundiaren betebeharrak eta konpromisoak.

7.3.- Obligaciones y compromisos de la Diputación Foral de Bizkaia

Hitzarmen honen ondorioetarako,

A los efectos establecidos en el presente

Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Bizkaiko Foru Aldundiko Sailak, honako konpromisoak hartzen ditu:

- 2021ko aurrekontu ekitaldiaren kargura dagokion xedapenean jasotako zenbatekoa ematea, baimendutako aurrekontu kreditua gainditu gabe.
- Hitzartutako zerbitzuan egonaldi baimenei edo ezeztatzeei buruzko ebazpenen jakinarazpena bidaltzea, horrelakorik egonez gero.
- Programaren egikaritzea koordinatzea eta garapenaren jarraipena egitea, albo batera utzita hitzarmenaren Jarraipen Batzordeari buruz adierazitakoa.
- Etengabeko koordinazio- eta elkartze-espazioak ematea, beste zerbitzu batzuekin konexioa, jarraitutasuna eta koordinazioa izate aldera, esku-hartzea integrala, dimentsio aniztuna eta diziplina artekoa izateko eta sarean lan egiteko dinamikarako.
- Entitate laguntzaileak horri eragiten dioten prozesuen diseinuan aktiboki parte hartzen laguntzea.

Convenio el Departamento de Empleo, Inclusión Social e Igualdad de la Diputación Foral de Bizkaia se compromete a:

- Aportar con cargo al ejercicio presupuestario 2021 la cantidad señalada en la estipulación correspondiente, que no superará el crédito presupuestario autorizado.
- Remitir notificación de cada una de las resoluciones de autorización o cancelación de estancia en el servicio convenido que, en su caso, puedan dictarse.
- Coordinar la ejecución del programa y realizar el seguimiento de su evolución, sin perjuicio de lo señalado respecto de la comisión de seguimiento del convenio.
- Facilitar espacios de encuentro y coordinación permanente de cara a la conexión, continuidad y coordinación con otros servicios, en una dinámica de trabajo en red e intervención integral, multidimensional e interdisciplinar.
- Facilitar la participación activa de la entidad colaboradora en el diseño de los procesos que le afecten.

## Zortzigarrena.- Alderdiek beren gain hartutako betebehar eta konpromisoak ez betetzearen ondorioak

